

UREZTATZEKO URA ETA DISOLUZIO ELIKAGARRIAK 2002ko ekaina

Balio optimoak:

Disoluzio elikagarriak laborantza hidroponikoan												
Laborea	Anioiak, mg/l					Katioiak, mg/l					pH	Eroank. ($\mu\text{s}/\text{cm}$)
	NO_3^-	PO_4	SO_4^{2-}	HCO_3^-	Cl^-	NH_4^+	K^+	Ca^{2+}	Mg^{2+}	Na^+		
Alstromeria	675	119	120	30,5		22,5	234	114,8	24,3		5,5	
Krabelina	806	142	365	30,5		27,0	254	150	24,3		6,5	2000
Gerbera	697	119	120	30,5		27,0	215	120	24,3		5,5	
Letxua	1178	190	144	30,5		36,0	429	180	24,3		5,5	2410
Arrosa	682	119	120	30,5		0-22,5	195	140	18,2		5,5	
Tomatea 1. lorea erne arte	855	142	365	30,5		14,4	207	212	72,9		5,5	2230
Tomatea 3. lorea erne arte	917	142	365	30,5		23,4	304	192	60,8		5,5	2370
Tomatea 3. lorea erne eta gero arte	855	142	365	30,5		23,4	343	176	48,6		5,5	2290
Poinsetia hasieran	682	142	72	30,5		9	166	148	30,4			
Poinsetia udako kimaketan eta kimu berrietan	886	95	72	30,5		0	195	200	30,4			
Ponsetia azken astean	886	95	144	30,5		0	234	220	36,4			
ziklaman lehena	495	95	72	30,5		9	156	100	18,2			
ziklaman bigarrena	744	95	96	30,5		117	105	40				

Iturria: Domingo Merino Merino (GFA) eta Teodoro Martínez Garmendia (BIHOEL)

KONBERTSIO TAULA				
mmol/litro	Pisu molekularra	mg/litro	Pisu baliokidea	mbal/l
	← +	Kantitatea +	→	
	40	Ca^{2+}	20	
	24,3	Mg^{2+}	12,16	
	23	Na^+	23	
	39	K^+	39	
	18	NH_4^+	18	
	35,5	Cl^-	35,5	
	96	SO_4^-	48	
	61	CO_3H^-	61	
	62	NO_3^-	62	
	95	PO_4^-	32	

miligramo/litro-tatik milibalokide/litro-tara pasatzeko, mg/litro-ak zati elementuaren pisu baliokidea egin behar duzu. Alderantziz nahi baduzu, hau da,

mbal/litro-tatik *mg/litro*-tara pasatzeko, *mbal/litro*-ak bider elementuaren pisu baliokidea egin behar duzu. *miligramo/litro*-tatik *milimol/litro*-tara pasatzeko, *mg/litro*-ak zati pisu molekularra egin behar duzu.

pH-a 5,8 baino txikiagoa bada:

Ureztatzeko uraren pH-a 5,8 baino txikiagoa bada, edo disoluzio elikagarrietan pH-a beherazten duen arazoren bat baldin badago, gatz alkalinizatzaileak gehitu behar dira, adibidez:

- Biamonio fosfata
- Potasio bikarbonatoa
- Sodio bikarbonatoa

Gipuzkoan uretan ez da gatz gehiegiaren arazorik izaten, eta beldurrik gabe erabil daiteke sodio bikarbonatoa.

Sodio bikarbonatoa, Pisu molekularra (CO_3HNa) = 84

$$\text{Ad.: } 0,20 \text{ mmol / litro} \times 84 \text{ mg / m mol} = 16,8 \text{ mg / litro.}$$

Beraz, bikarbonato edukia 0,20 mmol gehitzeko, urari 16,8 mg sodio bikarbonato gehitu behar diogu, litroko.

pH-a 5,8 baino handiagoa bada:

Ureztatzeko uraren pH-a 5,8 baino handiagoa izatea, hau da, handiegia, uretan bikarbonato ioiak (batez ere) eta karbonato ioiak (ez hainbeste) dauden seinale da. pH-a beheratzeko, ioi horiek ezabatu egin behar dira azido fosforikoa edo nitrikoa gehituz.

Bikarbonatoak azidoz neutralizatzeko, bateko baliokideak adina bestekoak behar dira, eta karbonatoak neutralizatzeko, karbonatoko baliokide bakoitzeko, bi baliokide azido.

Iturria: Fraisoroko Nekazaritza Laborategia, GFA.